



## JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA AIRE ZABALEAN

### 1. Egin al daiteke jarduera fisikoa eta kirola taldeka (korrika egitea, bizikletaz ibiltzea)?

Bai, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa, bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean.

### 2. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea jarduera fisikorako eta kirolerako?

Maskara aire zabaleko espazioetan erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeen kasuan izan ezik. Kirol-jardueraren bat egiten denean, maskara ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan eta oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, ezta kanpoko intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan ere.

## KIROL-INSTALAZIOAK (Igerilekuak barne)

### 3. Zer kirol-jarduera mota dago baimenduta kirol-instalazioetan?

Edozein Kirol-instalaziotan, kirola bakarka edo taldeka egin ahal izango da, eta taldekatze-mugarik gabe.

Horrez gain, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak oro har edo haren eremu espezifikoetan kirol-jarduera garatzeko ezartzen dituen gidalerroak eta gidak errespetatu beharko dira.

### 4. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kirol instalazioetan?

Aire zabaleko instalazioetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeen kasuan izan ezik. Maskara erabiltzea ez da beharrezkoa izango: igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean, kirol lehiaketetan (entrenamenduak barne) eta intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan aire zabalean.

Kirol instalazio itxietan, maskara nahitaez erabili behar da. Ez da beharrezkoa izango igerileku eta ur-jolasguneetan maskara erabiltzea, ez bainatzeko garaian, ez dutxatzeko unean. Halaber, ez da eskatuko kirol lehiaketetan (entrenamenduak barne).

### 5. Zein da kirol-instalazioetan, igerilekuak barne, baimendutako gehieneko edukiera?

Baimendutako gehieneko edukieraren %100 izango da.

**6. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?**

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren %100eko okupazioarekin. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

**ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA FEDERATUAK, EZ FEDERATUAK  
ETA PROFESIONALAK****7. Entrenatu eta lehiatu dezake kirolari federatu batek?**

Bai, entrenatu eta lehiatu dezake. Federazio bakoitzari, bere eremuan, eta, kasua bada, lehiaketa bakoitzaren ardura duten erakundeei dagokie Osasun Publikoko Sailaren jarraibideak zorrotz betetzen direla zaintzea.

**8. Antolatu al daitezke federazioen estaldurarik gabeko lehiaketak?**

Bai, onartuko dira federazioen egituratik kanpo antolatzen diren kirol-lehiaketak, antolatzaileek baimena eskatu beharko diete erakunde eskudunei, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren jarraibideak betez, higiene- eta urruntze-neurri guztien jarraipena eta osasun-agintariek ezarritako beste edozein arau bermatuz.

Si, se permiten las pruebas que se organizan al margen del entramado federativo. Las personas organizadoras deberán solicitar la autorización a las instituciones competentes cumpliendo con las directrices de la Dirección de Salud Pública y Adicciones y garantizando el seguimiento de todas las medidas de higiene y distanciamiento y cualquier otra norma establecida por parte de las autoridades sanitarias.

**9. Lehiaketa eta entrenamenduetan gaudenean, aldagelak erabil daitezke?**

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren %100eko okupazioarekin. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

**ESKOLA KIROLA****10. Zer da eskola-kirola?**

Lehendakariaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoaren ondorioetarako, eskola-kiroltzat hartzen da federatu gabeko kirol-jarduera antolatu oro, baldin eta 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek eskola-orduetatik kanpo egiten badute derrigorrezko eskolaldian, edozein dela ere jarduera antolatzen duen erakundea eta aldi berean eskola-kiroleko programetakoa den ala ez.

**11. Zer jarduera egin dezakete eskola kirolean?**

Eskola-kiroleko entrenamenduak eta lehiaketak egin ahal izango dira taldekatze-mugarik gabe.

**12. Maskara erabili behar da eskola kirolean?**

Aire zabaleko instalazioetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeen kasuan izan ezik. Maskara erabiltzea ez da beharrezkoa izango: igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean, kirol lehiaketetan (entrenamenduak barne) eta intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan aire zabalean.

Kirol instalazio itxietan, maskara nahitaez erabili behar da. Ez da beharrezkoa izango igerileku eta ur-jolasguneetan maskara erabiltzea, ez bainatzeko garaian, ez dutxatzeko unean. Halaber, ez da eskatuko kirol lehiaketetan (entrenamenduak barne).

**13. Aldagelak eta dutxak erabil ditzakete eskola kirolean?**

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren %100eko okupazioarekin. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

**14. Eskola kiroleko jarduerak protokoloren bat izan behar dute?**

Foru Aldundietako Eskola Kiroleko Programetan izena emanda dauden entitateek egiten dituzten jarduerak eta horiek baimentzen dituzten beste jarduerak, indarrean dauden arabei jarraikiz eguneratutako jarduketa protokoloa izan beharko dute.

Ikastetxeetan egiten diren jarduerak hauen protokoloak errespetatu beharko dituzte eta, halaber, hirugarrenen instalazioak erabiltzen direnean, horietarako ezarritako protokoloak errespetatu beharko dira.

**LEHIAKETAK. KIROL-EKITALDI ETA IKUSKIZUNAK.****15. Zein da kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskitun bat publikoa bertaratzeko prozedura?**

Arriskuak murrizteko plan-protokolo bat eduki beharko da.

Protokolo-plan hori erakunde eskudunei aurkeztuko zaie, lehiaketa garatzeko baimena eskatzeko.

**16. Zein da eskumena duen erakundea lehiaketa garatzeko baimena eman behar duena?**

Baimena ematea bidezkoa denean, erakunde eskuduna, egoera arruntean eskuduna dena izango da.

**17. Joan al daiteke lehiaketa, ekitaldi edo kirol-ikuskizun bat ikustera?**

Bai, edukieraren %100eko gehieneko edukierarekin.

5.000 pertsonatik gorako edukiera duten esparru itxiak izango dira salbuespena; izan ere, horietan, baimendutako gehieneko edukiera % 80koa izango da.

Arreta berezia jarri beharko zaie instalazioetara sartzeko eta handik irteteko protokoloei, batez ere edukiera handiena dutenetan.

**18. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskizunetara joaten den jendearentzat?**

Kirol instalazio itxietan eta aire zabalean egiten diren probetan, maskara nahitaez erabili behar da.

**19. Kirol-lehiaketa bat ikustera joaten diren pertsonak janaririk edo edaririk kontsumitu ahal izango dute?**

Lehiaketa garatzen den instalazio mota edozein dela ere, ezingo da elikagairik edo edaririk kontsumitu, ura izan ezik.

Ostalaritza eta jatetxe guneetan baino ezin izango dira janariak eta edariak saldu eta kontsumitu.

**20. Onartzen al da zutik egotea kirol-lehiaketa, -ekitaldi edo -ikuskizun batean?**

Harmailak edo eserlekuak dituzten kirol-instalazioetan, jendea eserita egon beharko da, segurtasun-distantzia errespetatzen saiatuko da, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeek kasuan izan ezik eta edukiera-mugak nagusituko dira. Harmailarik edo eserlekurik ez duten instalazioetan eta publikoa zutik egon behar bada, segurtasun-distantzia errespetatzen saiatuko da, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeek kasuan izan ezik eta edukiera-mugak nagusituko dira.



Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 7a.

**JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA**